

Emakumea eta Islama norgehiagoka

Gema Martinezek, Arabiar arazoetako adituak, emakumearen lorpenak goraipatzen ditu

Gema Martinez Muñoz, Madrilgo unibertsitate autonomoko irakasleak Emakume internazionalistek 'Emakumea eta Islam-a' lemapean antolatu zituzten ihardunaldietan parte hartu zuen. Zenbait sek-

torek, emakumearen egoeraren aurrean azaltzen duten jarrera eta gerora begira dauden egitasmoak aztertu zituen bertan. Historian zehar talde honen barnean izandako eraldaketak argitzeaz gain, Islama

eta emakumearen arteko harremanaren ikuspegi berri bat eman zuen. Adituak, arabiar emakumearen egungo egoera eta bizitzaren arlo ezberdinetako antolamenduari buruz hitzegi zuen.



JAIONE GARMENDIA / DONOSTIA

Gaur egun munduan zehar dagoen kontserbadurismoaren eraginez, emakumea mende honetako «kopla-burukoa» dela adierazi zuen Gema Martinezek. Adituaren hitzetan, «gauregun aldaketa ekonomiko handiak ematen ari dira eta horren aurrean, irtenbide pragmatikoak bilatzen ditugu» baina era berean irtenbide hauek emakumearen diskriminazioaren alde egiten dutela adierazi zuen.

Islam-a eta islamismoaren artean sortzen diren nahasketei dagokionez, emakumeak islamismoaren aurka egin arren Islam-aren aldekoa dela adierazi zuen arabiar eta islamista arazoetako adituak, «emakumeak Islam-aren barne jarraitu nahi du, baina doktrinaren ikuspegi progresista soilik azpimarratzen du».

Arabiar munduko ekintza feministak, indar progresisten lana dira. Gema Martinezen ustez, ekintzak hirietara mugatzen direnez, «nekazal munduan ez dute mobilizazioen berririk jasotzen eta horrek emakumeen borroka asko eragozten du». Herri ezberdinetan emakume taldeak antolatu badira ere, ez dute azpiegitura indartsurik osatzeko aukerarik izan.

Gaur egungo arazo demografiakoari dagokionez, gobernua eragindako plangintza demografikoaren eta gizartearen pentsamoldearen arteko kontraesana dago. Adituak esan zuenez «plangintza hori legiti-matu nahian ari da gobernua, baina islamistek ez dute inolaz ere kontra-zeptzio hori onartuko».

LEGEAREN AURREKO EZBERDINTASUNAK

Legeak gizonen eta emakumeen arteko ezberdintasunak interpretatzen dituztenez gero, emakumea babesik gabe gelditzen da justiziaren aurrean eta beldurak eraginda bere egoera onartu egiten du. Madrilgo irakaslearen hitzetan «legea etengabeko txantaia da eta emakumea bel-



Emakumeek etxetik kanpoko lana egiten jarraituko dute

EGUNKARIA

durrez bizi da». Emakumeen gehien-goak ez du bere egoeraren larritasunaren berri eta gizartearen dagoen ordena onartzen du. Gizonezko eta emakumezkoen arteko ezberdintasunak oraindik ere nabarmenak izan arren, Gema Martinez baikor azaldu zen eta gizarte arabiarreko emakumea lan-munduan sartuko dela adierazi zuen.

Koran-aren alde progresista eta patriarkala ere aipatu zituen adituak

eta gaur egun doktrinaren ikuspegi atzerakoia azpimarratzen dela argitu zuen. Ikuspegi honen arabera emakumea gizonezkoaren menpe dago. Emaztea uztea eta poligamia onartuak daude.

Eskolatutako emakumeek gaitortzeko bako bako aukera gehiago dituzte. Gaur egun, hirietako talde feministen aldarrikapenak herri txiki-tara zabaltzea ezinezkoa denez, kolektibo hau oso isolatua dago.



Hirietako emakumeek nekazariak baino aukera gehiago dituzte antolatzeke.

Oinarriak

ESTRATEGIA. Emakume hauen helburuetariko bat, amankomuneko borroka estrategia gauzatzea da. Elkartasun aktibo eta oparoa antolatu eta hiritartasun osoa eskuratu nahi dute.

BANDERA. «Magreba, emakumeen egiazko eta erabateko hiritartasunarekin gauzatuko da» lemapean bildu dira herri hauetako emakume elkarteak. Beraien ustez, emakumeen eskubide guztien aitortze gabe ez dago benetako demokraziarik Magrebean.

ERLIJIOA. Emakumearen aurkako erasoak eragiten dituen integrismo erlijiosoaren aurka egitea, proposatzen dute.

GIZARTEA. Seme-alabak ekartzeko funtzioa inposatzen dien gizarte proiektuaren aurka daude.

BERDINTASUNA. Eskakizun guztietako lehen hitza da. Berdintasuna, maila juridiko, politiko eta sozio-ekonomikoan esijitzeaz gain, aldarrikapenak aurrera eramateko mugimendu eraginkor bat antolatzeke.

Famili kodeak ez ditu arau konstituzionalak errespetatzen

J.G. / DONOSTIA

Konstituzioaren arabera, legeak ez luke sexu, jaiotze, arraza edota erizitiaren gaineko ezberdintasunik egin behar, baina kodeak emakume eta gizonen arteko bereizketa azpimarratzen du. Independentzia lortu ondoren sortutako estatu berrien ondorioa da famili kodea. Lege honek emakumea bere bizitza egiteko ezindua uzten du eta praktikan ez dira erabateko hiritartzat hartuak. Harreman pertsonalak, sozialak eta bestelakoak erregulatzeaz gain emakumea gizonen menpe uzten du lege honek.

Kodeak, ez du betidanik zentzu ezezko hori izan eta hasiera batean, familiaren egoera erregulatzeke sortu zen. Garai hartan ez zuen egungo ikuspegi atzerakoia eta Gema Martinezen ustez «oso progresista izan ezezik berdintasunaren alde egiten zuen». Kodea praktikan jartzekoan, estatus sozialak eragin handia dauka, horrela, klase altuko emakumeek gaitortzekoak ez bezalako pribilegioak dituzte. Talde feministek kodearen alde atzerakoia desagertarazi nahi dute. Legea konstituzioaren aurka joan arren, talde hauek ezin dute deus ere egin justizia gizonen eskutik dagoelako.



Gema Martinez Muñoz. EGUNKARIA

Eskubide politiko-juridikoen aldarrikapena legearen aurrean

J.G. / DONOSTIA

Emakumearen estatutu pertsonala arautzen duen legeri aurre egiteko, talde feministek zenbait eskubide aldarrikatzen dituzte. Eskubide hauek maila juridiko, politiko eta sozio-ekonomikoan banatzen dira eta ondorengo eskakizunak jasotzen dituzte:

Botua eman eta erakunde politikoetan parte hartzearekin batera famili kodea lege kanpo uzteko eskubidea.

Gaur egun emakumeak gizonen-koari lana kentzen dioneko ustearen

kontra propaganda kanpainak bultzatu nahi dira eta sektore honetako langabeziaren arazoa konpontzea eskatzen dute.

Eskola liburuak emakume eta gizonen arteko ezberdintasuna eragiten dutenez, berrikuntzak ezartzeko beharra azpimarratzen dute. Bietariko sistimen alde egiteaz gain, goi mailako ikasketak burutzeke egiten den diskriminazioa ere desagertarazi egin nahi dute.

Emakumeak ez ditezela bigarren mailako pertsonatzat hartuak izan; edozein motatako bazterketaren aurka agertzen dira.